


Irakurketa tailerra hamabostean behin

*Hogeitahamar pertsonak eman dute izena
Zuloaga Etxean



Irakurketa tailerra Zuloaga Etxean izaten da

Udal Liburutegiak irakurketa tailer bat antolatu du, hamabostean behin arratsaldean Zuloaga Etxean literatur lan batzuk irakurtzeko asmoz. Maite Gonzalez idazle eta itzultzailea da tailerraren zuzendaria, eta bere esanetan, helburua "tailerrera etortzen direnei irakurketa egoki bat egiteko gida batzuk eskaintzea da, baita denen aportazioarekin debate moduko bat sortzea ere".

Azaroaren 14an bukatu zen tailerlean parte hartzeko izenemate epea, eta 30 lagun bildu dira. Antolatzaileen ustez "kopuru oso polita da. Egia esan behar bada ez genuen uste hainbeste parte hartzea egongo zenik".

Mintegian parte hartuko duten gehiengo nagusia emakumeek osatzen dute. Hilean bi aldiz izango da, astearteetan eta arratsaldeko hiru-retain, Zuloaga Etxean.

Juan San Martinen lan batzuk argitaratu dira

“Juan San Martinen antologia” izena duen liburua argitaratu berri da, maiatzean zendu zen euskaltzalean bizitzan zehar EGAN aldizkarian argitaratutako lanekin. Udal Euskara Batzordeak antolatzen dituen Neguko Jardunaldietan pertsonai ospetsu bat aukeratu ohi da. Aurten Juan San Martin izan da, eta iaz Martin Ugalde.

Hondarribiko Udal Areto Nagusian azaroaren 25ean egin zen liburuaren aurkezpena. Liburu honek Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen eranskinean agertu ziren testo batzuen aukeraketa jasotzen du, Juan San Martinek argitaratuak. Juan San Martinek argitaldi honen zuzendaritza hartu zuen bere bizitzaren garai batean.

Bildumaren lana eta liburuaren definizioa bere semeak Oierrek, eta jadaneko argitaratzearen zuzendariak, Guillermo Etxeberriak egina da. Azalaren egilea bere seme nagusia, Unai San Martin izan da. Idazle honen omenaldia ez da liburuaren aurkezpena bakarrik geratzen. Zuloaga Etxean erakusketa bat egon zen pertsona honi eskainita. Erakusketak Juan San Martinen irudiak eta pasai batzuk jasotzen ditu.

Bere bizitzan zehar zenbait gairen ikerketa lanak egin zituen. Kultura eta zientziaren arlo batzuekin erlazionatuta dago: literatura, arte, arkitektura edo antropologia. Bere azken garaietan egin zituen lanak Hondarribiarekin erlazionatuta daude. Abenduaren 2003an Hondarribiko Udalak Urrezko domina eman zion. Ekintza honetan Javier de Aramburuk Juan San Martinen ibilbidea azaldu zuen, baita bere giza ezagueriak azpimarratu ere.



Liburu berriaren azala